

Ordizian, **2012ko urriaren 24ean**, UDALBATZA elkartu da UDALETXEKO BILKURA-ARETOAN **OHIKO BILERA** egiteko. Bertan izan dira honako hauek:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA: Igor Eguren Izagirre jauna.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Izaro Intsausti Zinkunegi andrea.	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Eduarne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK :

IDAZKARIA:

Martin Iparragirre Mujika jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aramburu Otegi.

ITZULTZAILEA:

Izaskun Zubitur Iñarra

BERTARATUAK

EGUNEKO GAIAK

EGUNEKO GAIEN ZERRENDA:

- 1.- 2012ko irailaren 24ean egindako aparteko Osoko Bilkurako akta onartzea.
.....**4.orr.**
- 2.- 2012ko irailaren 27an egindako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.
.....**4.orr.**
- 3.- 2012ko urriaren 11an egindako aparteko eta presazko Osoko Bilkurako akta onartzea.
.....**4.orr.**
- 4.- 2013ko ekitaldirako auto-taxien tarifa.
.....**15.orr.**
- 5.- 2013ko ekitaldirako Tasa eta Zergen Proposamena.
.....**16.orr.**

PRESAZKO BIDETIK SARTUTAKO GAIAK:

GORABEHERAK

GALDE-ESKEAK

- .- Intsausti plazan jarri berria den trafiko seinaleari buruzko kexak.
.....**16.orr.**

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19.00ak.

AMAIERA ORDUA: 20:15ak.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.- 2012ko irailaren 24an egindako aparteko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2012ko irailaren 24an aparteko deialdian egindako bileraren akta-zirriborrea onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 4, EAJ 2,PSE-EE (PSOE)1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 (BILDU 3, EAJ 3 Ez zirelako bileran egon)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 2. puntuaren berri eman du.

2.- 2012ko irailaren 27an egindako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

2012ko irailaren 27an ohiko deialdian egindako bileraren akta-zirriborrea onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Nahiz eta deialdia irailaren 24ko akta ipini, aklaratu da data zuzena 2012ko irailaren 27a dela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 13 (BILDU 7, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena onartutzat eman du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendako 3. puntuaren berri eman du:

3.- 2012ko urriaren 11an egindako aparteko eta presazko Osoko Bilkurako akta onartzea.

2012ko urriaren 11an egindako aparteko eta presazko bileraren akta-zirriborroa onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 6 (BILDU3, PSE-EE (PSOE)1, EAJ 2)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 7 (BILDU 4, EAJ 3, Ez zirelako bileran egon)

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- 2013ko ekitaldirako auto-taxien tarifa.

Proposamena

AGITAX, Gipuzkoako Taxisten Elkarteko presidente Emilio Fernandez Fidalgo jaunak aurkeztutako idatziaren berri eman da. Idatzi horretan, auto-taxien herri barruko 2013ko tarifak berrikustea eskatzen du, ondoren zehazten den eran:

2013ko HERRI BARRUKO TARIFAK			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,3943	1,0626	20,2963
TARIFA 2**	3,3943	1,6947	31,8992

* Lanegunetan, 07:00etatik 22:00ak arte.

** Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00etatik 7:00ak arte. Bai igande eta araudi autonomika eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larunbatetan, eta abenduaren 24 eta abenduaren 31 egunetan.

AGITAXek tarifen iguera justifikatuz prestatu duen txostena ekonomikoa ikurik

Herri barruko gaurko dauden tarifak, hauek dira:

2012ko HERRI BARRUKO TARIFAK*			
KONTZEPTU TARIFA	ABIASARIA	EGINDAKO KILOMETROAK	ITXARON ORDUA
TARIFA 1*	3,3147	1,0377	19,8206
TARIFA 2**	3,3147	1,6549	31,1515

* BEZ 10% eguneratutako tarifa, Euskadi Prezioen Batzordeak, 2012eko uztailaren 24koa, ezartzen duen EBAZPENEAN, 2012eko abuztuak 17, 160 zk. EHAAn argiratuta.

Gauzak hala, Plenorako Gaiien Batzordeak honako hau proposatzea erabaki du:

AKORDIO PROIEKTUA.

1.- Onartzea 2013ko auto-taxien tarifa aldatzea, esposizio-atalean esandakoaren arabera.

2.- Erabaki hau Goiekiri jakinaraztea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez dira izan.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 12 (BILDU 7, EAJ 5,)

Kontrako botoak: 1 (PSE-EE (PSOE)1)

Abstentzioak: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- 2013ko ekitaldirako Tasa eta Zergen proposamena.

Proposamena

2013ko zerga eta tasen inguruan Alkate jaunak aurkeztutako proposamena kontuan izanda, 2012ko urriaren 17an Plenorako Gaien Batzordean gaia aztertu ondoren eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailearen 5eko 11/1989 Foru Arauak dioena betez, ondorengo erabakia proposatzea adostu zen:

AKORDIORAKO PROIEKTUA

1.- 2013ko ekitaldian aplikatzekoak diren tasen zenbatekoa eta zergak arautzen dituen ordenantzen aldaketak behin-behinean onartzea.

2.- Ordenantza Fiskalen aldaketak jendaurrean argitaratzea iragarki Oholean jarrita eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta 30 eguneko epean, interesatuei udalbatzak aztertuko dituen erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko entzunaldirako aukera emanez. Erreklamaziorik ez balego, Ordenantzak behin betiko onartutzat emango dira akordio berririk hartzeko beharrik gabe.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: Soila.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jn.

Puntu hau eztabaidatzen hasi aurretik, adierazi du eguardi-arratsaldez bilera bat izan dutela EAJ alderdiarekin, eta honek adostasun bat iristeko proposamen bat luzatu duela, eta utziko diola

Santamaria jaunari horren azalpena ematen; jarraitu du esanez gaurko bozketarako ez dutela tasa eta zergen proposamena aldatuko, nahiz eta EAJ planteatutako proposamenak eztabaida izan dezakeen puntua izan.

Bukatu du esanez, aurrerantzean ere zalantzarik gabe hizketan jarraitu beharko dutela, eta etxebizitza hutsen gainkarguaren aplikazioa eta interpretazioa mulgutasunez egingo dela.

Santamaria jn

Hartu du hitza, eta adierazi du iaz bere alderdia prest egon zela K.P.I.aren igoera babesteko, baina famili ugarien gaia zela eta ez zela adostasunik lortu. Jarraitu du esanez eguerdian izandako bileran Alkate jaunari esan diola alde batetik K.P.I.aren arabera igotzea logikoa iruditzen zaiola, baina beste aldetik ere bere zalantzak azaldu dizkiola ea gaurko egoera ekonomikoa ikusita, eta baita ikusita ere zerga batzuk izan duten igoera (BEZ eta abar), eragin zuzena herritarrengan dutenez, ea igoera hau egiteko momentu egokiena den.

Bestalde, familia ugarien hobariei dagokienez, esan du kontuhartzaile jaunak familia ugarien kontua argitu diola, eta hobariak jaso direnez, horrekin ados daudela.

Bestalde etxebizitza librean gainkargari dagokionez, ikusten dute etxebizitza libre karga berri bat ezartzen zaiela, eta hori zigor modura hartzen dute, zeren eta uste dutea askotan ez dela kontuan izaten familiek hartu duten konpromisoa etxebizitza bat erosketa garaian, eta aktibitate horrek ekarritako ondorioak: ekonomia mugitu du, bai Udaleko zergetan, eta baita Ordizia herri bezala eraikitzeoan.

Aurreko astean hainbat supuesto jartzen zituen mahai gainean, eta garbi dago finkatu behar dela zer den etxebizitza libre, eta hortan hainbat zalantza daude (adibide batzuk jarri ditu mahai gainean: batzokiko etxebizitza, saldu gabe dauden etxebizitza berriak, adineko pertsonen kasua egoitza baten sartzerakoan, eta abar), lehenengo lana hori finkatzea izan behar du; bestalde helburua etxebizitza librean merkaturatzea bada, garbi dagoela hori ez dela lortuko. Bere ustetan errekaudatzeko helburua du, ez da kontuan izaten zein diren libre egoteko arazoak, eta aipatu du gaur egun ez daudela etxebizitzak alokatzeko garantiarik, ez errenta kobratzeko eta ezta alokairu bukaeran etxebizitza behar den egoeran berreskuratzeko, eta motibazio horiek ere kontuan eduki beharko lirakeela.

Hori dena kontuan hartuta Bilduri proposatu dio etxebizitza librentzat proposatzen den gainkargu hori bertan behera uzteko. Baita, esandakoaren arabera, ikusten du hausnarketa bat egin beharko litzatekeela zerga guztiei buruz orokorrean, eta ez orain egiten den bezala banan-bana igoeraren kalkuloa, eta inolaz ere ez orokorrean hartuta; bestalde aipatu du lurralde desoreka gerta daitekeela, eta herritarrek beste leku batzuetan erroldatzen hastea eta fondu foroko kontzeptuan sarrerak gutxitzea. Esan dio Alkate jaunari neurri honen helburua etxebizitza librean merkaturatzea bada, ez kargatzea baizik eta diskriminazio positibo neurriak hartzea; hori dena kontuan hartuta proposatu ziola EAJ alderdiaren aldeko botua, etxebizitza libren gainkarga hau bertan-behera uzten badu.

Alkate jaunak:

Adierazi du EAJ alderdiarekin posturak nahiko gertu daudela, eta aurrerantzean zalantzak tratatu eta adostasunak lortzera iritsi daitezkeela, eta EAJ aipatu dituen supuesto horiek, eta baita aipatu ez dituen beste batzuek ere, mulgutasunez interpretatuko direla, ez dela Santamaria jaunak esan bezala

errekaudatzeko neurria, baizik eta inzentibatzea egoera normalean hutsik dauden etxebizitzaren merkaturatzea.

Jarraian aipatu du Euskadi +09 programaren barruan lanketa bat egin zela eta ezagutzen dela 2010. urtean zeuden etxebizitza hutsak, eta supuesto horiek denak aztertu beharko direla zergaren ordainketa finkatu baino lehen, eta adibide batzuk jarri ditu.

Jarraian jabetza eta alokairuarekikoaren arteko datuak eman ditu: Estatu Frantsesan: jabetzan: %62 eta alokarian %38^a, Espainian %83^a eta %17^a, eta Euskal Herrian. %90^a eta %10^a, ez da interesa dirubilketa azkarra egitea, baizik eta etxebizitza hutsen merkaturatzea, eta hori garbi ikusten dela dirusarreraren aurreikuspena ikusten bada. Bukatzeko irakurketa malgua egingo dela azpimarratu du.

Santamaria jaunak:

Adierazi du, merkaturatze bada helburua, gustatuko litzaiokeela aurten zenbait etxebizitza libre dauden jakitea, eta hurrengo urteetan urtez-urte datu hori edukitzea, ea merkaturatze helbura betetzen ari den edo ez konprobatzeko. Eta aipatu dituen estatistikei dagokienez, horren atzean gai kulturala dagoela, eta bilera honetakoei galdetuko balitzaieke banan-bana iritzia, portzentaia igo egingo zela, eta ez zaiola iruditzen txarra norberak etxebizitza jabetzean eduki nahi izatea.

Dubreuil jaunak:

Hasi du interbentzioa Bildu taldeari eskerrak emanez bere iritzia azaltzeko emandako aukeragatik, eta jarraian bere kriterioak azaltzeko lanari ekin dio ondorengo idatzi hau irakurriz:

“Aurten, PSE-EEK tasen eta zergen inguruko proposamenak egin ditu, eta saiatu da ezartzen gure iritziz horien inguruko edozein aldaketa oinarri izango duten hainbat irizpide:

Irizpide 'ekologikoa'; arlo horretan, 'kutsatzen duenak ordain dezala' printzipioan oinarrituta, iraunkorrek ez diren jardueri zerga ezartzeko (zilindrada handiko ibilgailu motordunei ezartzen zaienaren ildo beretik). Neurri hori uraren erabilera ezar dakioke ('neurrigabekeria' kargatuz), edo zaborrak birziklatzea sustatzeari. Udalak (kontu-hartzaitzak) uraren gaineko tasen taula bat landuko luke, biztanleko kontsumoari erreparatuta, eta muga batetik gorako kontsumoa zergapetuko lukeen muga hori ezarriko luke. 'Kontsumo-tarteak' ezar daitezke...

Irizpide 'sozial' mailakaturia. Gutxien duten herritarren eskubideak bermatuko dituen gizarte-irizpidea. Krisia gainditzea eta udalaren zailtasun finantzario-ekonomikoak herritarren bizkarrean jarriko ez duen gizarte-irizpidea, baliabide gutxien duten herritarrei eta ekonomia-egoera honetan egoera ahulean daudenei sostengua emango diena. Diru-sarrera gutxi duten pertsonen edo unitateen (diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak), langabezia daudenei, gutxieneko pentsioak jasotzen dituzten pentsiodunei eta halakoei oinarritzko zerbitzuen (ura, zaborra) gaineko tasetan hobariak ezarriko dizkien irizpidea. 'Hobariez' ari gara, ez 'laguntzez'. Neurri horiek 'kontu-hartzaitzak' kudeatu beharko lituzke, gizarte-zerbitzuen atalaren bidez kudeatuz gero sor litezkeen 'etiketak' saiheste aldera.

Ekintzaileei eta enpresei sostengua emateko edo horiek 'bizkortzeko' irizpidea, tokian tokikotik ekonomia suspertzeko, krisia gainditze aldera. Gure asmoa da krisiaren aurkako tokiko plan bat lantzea, aurreko legealdian landutako eta abiarazitako I. Planaren barruan jasotako zerga-neurriak aurreikusiko

dituena (hobariak ezartzea Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergaren -EIOZ- barruan irisgarritasuna hobetzeko lanetan, denda berriak zabaltzeko edo erreformak egiteko eta abarretarako lanetan). Orain, dendak zabaltzeko lizentzietan zerga-salbuespenak proposatzen ditugu.

Eta, ordiziarrek udal-tasak eta zergak ordaintzerakoan izan ditzaketen zailtasunen aurrean, **udala 'eragile-bideratzaile' gisa hartuko duen irizpidea**, jarrera 'malgua' eta ulerkorra izango duen udala, baina, aldi berean, ordenatua eta plangintzetan oinarrituko dena.

Bestalde, gure iritziz, aurten ere baliagarriak dira tasen eta zergen inguruan iaz Bilduk aurkeztu zuen proposamenari oniritzia ez ematera bultzatu gintuzten argudioak. Orduan, gure jarrera bat zetorren aurreko urteetan izan genuen jarrerarekin; hau da, gure iritziz **udalak ez zuen zama gehiago jarri behar aski zaturik zeuden herritarren bizkarren gainean**.

Orain proposatzen diren igoera horiei hainbat arlotan ematen ari diren gainerako igoerak gehitzen badizkiegu, inolako zalantzarik gabe zuek proposatzen dituzuenekin ordiziarrek, krisi-garai hauetan, karga gehiago jaso beharko dute beren bizkarren gainean.

Familietako ekonomiek urteak daramatzate eguneratu gabe; funtzionarioei soldatak murriztu eta doitu zaizkie; eta langile ordiziarrek, oro har, urteak daramatzate beren diru-sarrerak igo gabe. Ordiziako PSE-EEK ez du zerga-tasen igoera gordina nahi, ezta herritarrek beren gain hartzea ere karga horiek.

Horixe da arrazoirik lehena Bilduk proposatzen duen tasa- eta zerga-igoerari gure babesa ez emateko. Proposamen horrek ordiziarren gainean jarriko du are gehiago ekonomia-krisia.

Bestalde, ez da udal-tasei eta -zergei buruzko eztabaidarik egin, guretzat ezinbestekoa den marko honetan. Aipatu marko hori aintzat hartu behar dugu udaletik politika ordenatua, planifikatua, landua eta adostua bultzatze aldera; ekonomia suspertzeko, enplegua sortuko duten ekimenak aktibatze, edo merkataritza- eta eraikuntza-sektoreak bultzatzeko (bi adibide baino ez dira). Gai horretan nola edo hala gabilta. Marko orokor bat behar dugu, gure zerga-politika txertatzea aukera emango diguna. Marko hori ezean, zerga-politika dirua biltzeko baino ez da izango.

Garai hauetan, ezinbestekoa da herri-administrazioaren konpromisoa ordiziarren egoera ekonomikoaren gainbehera arinduko duten bizigarriak hartzeko. Ordiziako PSE-EEKooi kezagarria iruditzen zaigu Bilduren udal-gobernuak konstatatzea soilik krisia larriagotu egin dela, eta haren lehentasunen artean krisiaren aurkako udal-politika bat ez aurreikustea eta Ordiziak behar duen jarduera ekonomikoa indartzeko pizgarriak martxan ez jartzea. PSE-EEK dagoeneko proposatua du krisiari aurre egiteko tokian tokiko plana eguneratzea. Krisiaren aurkako plan horrek, bistan denez, zergen inguruko neurriak jaso beharko lituzke, eta halaxe zeuden jasota aurreko legealdian diseinatu genuen planean.

Gure zerga-politika modu arrazoituan eta koherenteki jasoko duen marko globala ez egotea da proposamen honi gure aldeko botoa ez emateko bigaren arrazoia.

Ordiziako familien diru-sarrerak gainbehera doazen une honetan, are ulertezinagoa da Bilduk kasu askotan KPI bera ere gaintzen duten zergen igoera-proiektua aurkeztea; esate baterako, gainbalioen gaineko zerga edo, zeharka, ondasun higiezinaren gaineko zerga. Katastro-balioa % 1 baino zertxobait gehiago igota, aplikatzen den portzentajea (% 2,5) gaintu egiten da, igo den % 1 horren gainean aplikatzen baita.

Ordiziako ekonomiaren barometroak erakusten digu 2012ko irailean Ordiziak 640 langabetu zituela. 2006az geroztik (hartan langabezia-tasa % 6,5 zen) tasa hori bikoitza baino gehiago da. 2012ko irailean, esan bezala, 640 langabetu genituen; alegia, % 13,4ko langabezia-tasa. Beasainek baino puntu 1 gehiago, eta Lazkaok baino 1,5 puntu gehiago. Gipuzkoako batez bestekoa baino 3 hamarren gehiago dugu. Gipuzkoako 88 udalerrietatik 21. postuan gaude. Ez da broma.

Horren aurrean, udal-gobernuak aurkeztutako proposamena badirudi ordiziarren errealitate ekonomikotik aparte dagoela. Ez dio aferari modu planifikatuan, modu integralean eta adostuan heltzen.

Gure iritziz, hortaz, ez da unerik egokiena dagoeneko nahikoa kalteturik dagoen herritarren ekonomia zerga-igoerekin areago kaltetzeko. Hori dela-eta, 2013rako tasak eta zergak izoztea eskatzen dugu, ikuspegi orokorrari erreparatuta.

Unean uneko igoera batzuei (zilindrada handiko ibilgailuak, esaterako) gure oniritzia emango genieke, eta halaxe jakinarazi genuen Bildukoekin egindako bileran, diru horri emango zaion xede soziala kontuan hartuta. Halaber, eta gure zuzenketetan adierazitakoari helduz, oinarrizko errentak jasotzen dituzten familientzako edo iraupen luzeko langabetuentzako lehentasunezkoak izan daitezkeen tasen inguruko hobariak eta salbuespenak onartuko genituzke, herriak pairatzen duen krisi larri horretan lehentasunetatik nagusia hori dela ulertuta.

Hutsik dauden etxebizitzetara kargak ezartzei dagokionez, udaleko zerbitzu juridikoei eskatuko diegu neurri horren inguruko legezketasunari buruzko txostena lantzea. Gure ikuspuntutik, etxebizitzaren gaia gehiago landu beharra dago, eta ikuspegi ekimentsua eman. Etxebizitzak alokairuan merkaturatzea sustatu... Baina, alokairu soziala. Hobarien eta salbuespenen bidez. Ez 'zigorraren' bidez. Bilduren proposamenak diru-bilketa du helburu bakarra. Ez dago etxebizitza huts horiek alokairuaren merkatura joango direla edo eraman asmo direla azalduko duen txosten teknikorik. Edo alokairu hori 'alokairu sozialekoa' izango den.

Hori da beste arrazoietako bat Bilduren proposamenari gure babesa ez emateko. Ez gatoz bat hutsik dagoen etxebizitza 'behartzearekin' eta 'zigortzearekin'. Nahiago dugu jabeak hobarien bidez 'bultzatzea' etxebizitza huts horiek merkatura ditzaten; betiere, alokairu sozialean. Eta, halaber, gure iritziz, neurri hori edo beste batzuk egoera analizatuta, aztertuta, hausnartuta hartu behar dira, eta, nola ez, plangintza baten barruan.

Ez gatoz bat, halaber, zabor-tasaren igoerarekin; izan ere, arlo horretan gure ikuspuntuarekin bat ez datorren gaikako bilketa-sistema bat finantzatzeko baita. 5. edukiontzia erabilia birziklatzen duten ordiziarrek hobaria izan zezaten aurkeztu genuen zuzenketa atzera botata, hori ere beste arrazoietako bat da Bilduk 2013rako proposatu dituen tasei eta zergei gure babesa ez emateko. Zertarako igo tasa hori? Ez al du ba Bilduk esaten bere sistema merkeagoa dela? Orduan, zertarako nahi dute gehiago jaso?

Gaur Bilduk datorren urterako udal-tasen eta -zergen inguruko proposamena aurkeztu du, sarreren eztabaida gastuen eztabaidatik bananduz. Horrek ez du zentzurik. Hara: gaurko proposamen horrekin Bilduk Ordiziako herritarren poltsikoetatik zenbat diru jaso asmo duen esan digu. Eta, zalantzarik gabe, horrek badu bere garrantzia. Alabaina, garrantzitsuagoa da Bilduk diru horrekin egin asmo duen jakitea. Eta, Bilduk ez digu esan.

Hortaz, eta laburbilduz, ez diogu gure babesik emango Bilduk 2013rako aurkeztu dituen tasen eta zergen proposamenari:

1. **Aurkeztutako zerga-politikak ez duelako inolako loturarik ezein erreferentzia-marko orokor eta adosturekin, tokian tokikotasunetik krisiari aurre egiteko jarraitu beharreko politikari dagokionez.** Hortaz, gure iritziz, proposamena diru-biltzeko baino ez da.
2. **Gastuari buruzko eztabaidarekiko inolako loturarik gabe aurkezten delako.** Zer egin nahi du Bilduk jasoko duen diruarekin? Zabor-tasak ordainduko al ditugu 'atez atekoa' ordaintzeko? Bilduk egindako adierazpenen arabera, hondakinen kudeaketan aldaketak egongo dira. Aldaketa hori eta horrek ekarriko duena ezagutzen edo aurreikusten ez badugu, ezin dugu baliokidetasun-printzipioa aplikatu. Oro har aplikatzen eta horretara jotzen duguna. Horren arabera, tasen xedea izango da egitate zergagarria sortzen duen zerbitzuaren edo jardueraren kostua estaltzea. Zenbat kostako zaigu hondakinak kudeatzea? Ez digute datu horren berri eman, eta horrek zaildu eta ezinezkoa egiten du jarrera zehatz bat hartzea. Zertarako igo tasa hori? Ez al du ba Bilduk esaten bere sistema merkeagoa dela? Orduan, zertarako nahi dute gehiago jaso?
3. **Jarduera ekonomikoen gaineko zergaz (JEZ) ari garenean, biltzen denaren inguruko zalantza sortzen zaigulako, eta ez dugu azalpenik jaso.** Zerga horri dagokionez, foru-araua aldatzeak ahalbidetuko du udalek zerga hori kobratzea urtean milioi bat euro baino gehiago fakturatzeko duten enpresei (orain arte, bi milioi eurotik gora fakturatzeko zutenei soilik eskatzen zitzaie). Diru-sarrerara berri horrez gain, Bilduk % 1,85 igotzearen aldekoa da; horrek, aplikatzea daitekeen koefizienterik altuenera garamatza (2,20). Hauxe da sortzen zaigun zalantza: aztertu al duzue zein eragin izango duen gurean 2 milioitik milioi batera jaisten duen foru arau horrek? Udal-gobernuak milioi bat eta bi milioiren artean fakturatzeko duten enpresekin diru-iturri berri bat duenez, gure proposamena da zergaren koefiziente bakarra 2ra murriztera, edo 2,16an mantentzea. Baina 'ahotxikiarekin' esaten dugu, ez baitugu ezagutzen Aldundiaren neurriak gure udalerrian izango duen eragina, eta Bilduk ez digu zerga hori behar bezala baloratzeko beharrezkoa dugun informazioa eman.
4. **Zalantzarik ere sortzen digu gainbalioen gaineko zergak, % 10 egingo baitu gora.** Badakigu % 15eko muga duela, eta Bilduren proposamenarekin 6,5ean jarriko dela, gutxi gorabehera. Badirudi oraindik ere tarte dagoela, baina... Zergatik ez kobratu maximo hori banku-erakundeei etxebizitzak horien jabeak kaleratuta eskuratzeagatik (eskuratzailerak da kasu horretan subjektu pasiboa), eta gainerako herritarrei zerga hori izoztu? Aztertu al da aukera hori? Zergatik igo eta zigortu ordainketetan izandako atzerapenak?
5. **Ez diogu Bilduren proposamenari babesik emango ez dituelako PSE-EE aspaldi eskatzen ari den neurriak jasotzen ez dituelako:** udalak tasen, zergen eta prezio publikoen gerorapenak eta zatikapenak arautuko eta erraztuko dituen udal-ordenantza lantzea; udalak nahitaezko diru-bilketarako eta bestelako kudeaketetarako zerbitzuak kontratatzearen inguruko bideragarritasuna azter dezala (ondasun higiezinaren gaineko zerga eta bestelakoak kudeatzeko hitzarmenak -eranskinak-).
6. **Talde sozialistak aurkeztutako zuzenketak jasotzen ez dituelako.** Gure iritziz, zuzenketa horiek oinarritzeko dira; besteak beste, 5. edukiontzia erabiliko duten familiei hobariak egitea, alokairu sozialean jarriko diren etxebizitza hutsei eraikitzen, instalazioen eta obren gaineko zergan (EIOZ) eta ondasun higiezinaren gaineko zergan (OHZ) hobariak ezartzea.

7. **Hutsik dauden etxebizitzetarako dagokienez, 'zigor' neurriak proposatzen dituelako, eta ez sozialistok proposatzen genituen pizgarriak. Badakigu gure jarrera ez dela gure kideek Batzar Nagusietan duten berdina, baina uste dugu gure proposamena koherenteagoa dela gaur egun bizi dugun unearekin eta azken urteotan izan dugun jarrerarekin.**
8. **Eta, bereziki, beste urte batez, berriro ere, bilduk krisia ordiziarren bizkarraren gain jartzen duelako, pixka bat gehiago. “**

Kontuhartzaile jn.

Interbentzio honetan, kontuhartzaileak eman dizkio Dubreuil jaunak hainbat gaietan eskatutako azalpenak (jarduera ekonomiko gainekoen zerga, plusbalia zerga, zergak ordaintzeko atzerapen eta frakzionamendurako Ordenantza, Gipuzkoako Ur-kontsortzioak uraren kibraketari buruzko proposamena, eta abar).

Alkate jn

Adierazi du interbentzioa horren luzea izan denez, ez dakiela nondik hasi, eta oso erreza dela bota dituen hausnarketa eta kriterio guztiak botatzea, eta oso ondo badaude ere horiek denak, gogorarazi dio zer egin duen bere gobernu sozialistak enplegu planaren banaketarekin, eta zer pasatu den Floreaga hitzarmenarekin eta azpimarratu dio zein diren Bildu taldeko kriterioak zergen igoera aplikatzeko: ezkertiar kriterioa dela, beharrak eraginda egiten dena, eta inolaz ere ez errekaudazioa afanak eraginda.

Dubreuil jn

Alkate jaunari esan dio iritzi hauek denak Intsausti andrea, Redondo jauna eta berarekin batera bildu zenean esandakoak direla. Eta azaldutako datu guztiak egitazkoak direla.

Santamaria jn

Ezkertiar politika eta alokairu izaerako etxebizitzak aipatzen direnean, gogoratu du, Floreagako hitzarmen berria Batzorde batera ekarri zenean, bera izan zela adierazi zuena hitzarmen horrek ez zuela jasotzen Eusko Jaurlaritzarekin adostutakoa, alokairu izaerako etxebizitzak egiteko planteamendua aldatzen zelako; alkatearen aldetik ezezagutza aipatu zenean eta galdetuta hitzarmen berrirako izan ziren bileretan ea ez zen alokairu izaerako etxebizitzak egiteko planteamendua egin, ezetz erantzun zitzaiola, eta horrekin garbi ikusten dela ez zela inongo intentziorik horrelako etxebizitzak eskatzeko; jarraitu du esanez bera alkate zegoela adostutako hitzarmenaren zirriborroa espedientean jasota zegoela eta horrela ziurtatu duela idazkariak, eta hau aipatu nahi izan duela ezkertiar politika entzun duenaren harira. Bukatzeko alokairu izaerako etxebizitzak egiteko hitzarmenari buruzko azalpenak eman ditu, eta bukatu du esanez beraien aldetik garbi dagoela alokairu izaerako etxebizitzak alde egindako apostua.

Alkate jn

Erantzun dio eztabaida hau aprobeztatu duela Floreagako hitzarmenaren gaia berriro ateratzeko, eta orduan ere onartu zuela bere ezezagutza eta galdetu dio ea horrelako interesa bazegoen gai horretan eta beste gai batzuetan zergatik transmisioa egin zen egin zen moduan; bukatu du esanez, ondo dakien

bezala Batzordera ekarri zen hitzarmena eta baita mahai gainean dagoen hitzarmen berria sinatu gabe jarraitzen dutela.

Santamaria jn

Adierazi du legealdi berria hasi baino lehen bilera pare bat egin zirela transmisio lana egiteko, eta hainbat gai tratatu zirela eta bilera horietan Redondo jauna eta Maiza andrea ere izan zirela.

Maiza and.

Onartu du bilera pare bat egin zirela, eta horrelako bileretan egin badaiteke legealdi oso bateko transmisioa, gutxienez gai zerrenda bat ekarri behar zela.

Bozketa

Bozketa egin gero, ondorengo emaitzak izan dira:

Aldeko botoak: 7 (BILDU 7))

Kontrako botoak: 6(EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Abstentzioak: 0

Alkate jaunak ondorioz, aurkeztutako proposamena, onartutzat eman du.



Kontuhartzaile jn

Banatu den kreditu transferentzi espedienteari buruz, adierazi du komeni dela gaia tratatzea; kontuan hartuta eguneko gai zerrendan sartu gabe dagoela eta zinegotzi gehienek ez dutela ikusi, **adostu dute Ezohiko Udal Osoko Bilkura egitea hurrengo 2012-10-31n (asteazkena) arratsaldeko 19:00etan.**



Jarraian, Alkateak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

6.- Eskaerak eta galderak

Bolinaga jaunak adierazi du Intsausti plazazo sarreran, ipini berri den trafiko seinale bati buruz kexa pilo bat jaso dituela, eta galdetutakoaren arabera, Asenjo jaunak gai honi buruzko azalpenak eman dizkio.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaumak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, idazkariak egiaztatzen dut.